

ANITZ URTEZ! Piezen letrak

Esamoldeak:

- Zorionak = anitz urtez
- Muker egon
- Euria leher ari du

Irainak:

- Kaiku hori
- Ze zopa zaren!
- Ilupak
- Aztunpak

Zirtoak:

- Zer duzu Kattalin?
- Kattalin beti isilik!

- Non dira?
- Jon eta bertan!

Formula:

- **Euria egitean kantatzen da:**

Euria, euria!
Azpiko Andre Maria.
Txoritxoak kantari,
lainoz zerua estali.
Baietz, ezetz,
euri zapar hotsez!

Txistek:

- **Satorra Ezkurrako plazan**

Badakizu zer gertatu zen Ezkurran sator batekin? Bertako plaza ez zen orain ezagutzen dugun bezalako, harrizkoa eta, ez. Dena lurra zen eta sator bat ibiltzen zen han zuloak egiten. Orduan, egun batean alkateak arazoa konpontzeko zera esan zuen: duro zilar bat emango ziola satorra harrapatzen zuenari. Orduan, bueno, duro zilar bat asko zen eta herri guztia joan zen plaza hartara satorra harrapatzera.

Halako batean, tipo batek aitzurrarekin pa! zuloa egin ra! eta satorra bizirik atera zuen. Orduan denak bildu ziren bere inguruan eta hasi ziren erabakitzen: “Zer egingo dugu sator honekin?”, “Zer egingo dugu?”, “Zer egingo dugu?”. A! Eta zigor aproposa okurritu zitzaien: satorra bizirik lurperatzea!

- **Ilargira iritsi nahi zuten**

Ilargi betea zegoen egun batean, ilargi ederrarekin liluratuta, ezkurarrek pentsatu zuten: “Bai ederra ilargia! Harrapatu behar dugu!”. Orduan, herri guztiko esportak bildu zituzten eta bata bertzearen gainean paratuta ilargiraino iristeko asmoa zuten, baina saski handi horiek akabatu zitzaizkien eta orduan hasi ziren: “A! Ez dugu esportarik. Zer egingen dugu?”. Eta batek erantzun zuen: “Zolakoa atera behar dugu!”. Zolakoa ateratzen hasi eta dena iupala dena! Hura ere akabo!

Onomatopeia:

- Zapa!